

Gurean Bai-Merkataritza: “Euskara ez daukagu saltzeko”

2002ko urtarrilean, herriko merkataritza-sektorea euskalduntzeko pertsianak jaso ziren Elgoibarren. “Euskara ez daukagu saltzeko” leloa abiapuntu hartuta, herriko 131 dendak baietz esan zioten eguneroko lanean euskarari tokia egiteko konpromisoari. 180 dendatan aurkeztu zen proiektua, eta, esan bezala, 131 dendatan eman zioten baietza hitzarmenari.

Denda bakoitzak bere konpromisoak hartu zituen; dendaren egoera eta borondatea ez zen berdina, eta bakoitzak bere neurriko konpromiso-maila hitzartu zuen. Elkartearen lana, berriz, dendariei konpromiso horiek betetzeko laguntza eskaintzea da.

Gurean Bai-Merkataritza da Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin, martxan jarri duen azken proiektua. Proiektu estrategikoa eta garrantzitsua da. Zergatik? Herri osoa inplikatzeko den sektorea delako merkataritza. Gehiago edo gutxiago, denok mugitzen gara herriko dendetan, eta denok hartzen dugu parte dendetako hizkuntza-portaeretan.

Baina ezin da ardura guztia dendarien bizkarrean laga. Izan ere, eta dendariak aitortzen dutenez, bezeroak edo herritarrak dira, neurri handi batean, dendetako komunikazio-hizkuntza markatzen dutenak.

Proiektu estrategikoa da merkataritza. Herri osoa inplikatzeko den sektorea da.

Gurean Bai-Merkataritza proiektua berria bada ere, dagoeneko hiru teknikarik jardun dute lanean proiektuari tiraka. Hurrenez hurren, Itsaso Ezenarro getariarra izan zen lehen teknikaria. Gero, Nagore Dorronsoro debarrak hartu zuen lekukoa. Eta, gaur egun, Ainara Betegi azpeitiarrak dihardu teknikari-lanetan.

Amaitzeko, orain arte egin eta lortu denaren errebaso txiki bat egingo dugu:

- Lehen zeregin garrantzitsua dendetako diagnostia egitea izan zen.
- Gero, dendari bakoitzak bere dendari dagozkion konpromiso zehatzak hartu eta sinatu zituen.
- Gaur egun, besteak beste, dendariei laguntzen dihardu proiektuaren teknikariak haiek hartutako konpromisoak betetzeko poliki-poliki.

Lorpenei dagokienez, hona bi urte eta erdian lortu denaren laburpen bat:

- Elgoibarko merkataritza-sektorean euskarari leku eta tratamendu berria eskaintzea.
- Dendetako irudi linguistikoa neurri handi batean euskalduntzea.
- Dendarien euskararen ahozko erabilera indartzea.
- Dendari batzuk euskara ikastera animatzea.
- Eta, akaso, garrantzitsuena, dendariak proiektua ulertzea eta onartzea lortu da.